

ANTZERKIFORUMA
TEATROFORUM

Eta hik zer?

baketik



DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIAN

1. Sarrera - DSS2016 aurkezpena

Herritarren energia-olatuak Elkarbizitzarako kultura

«**Europako Kultura Hiriburua**» Europako Kontseiluak eta Parlamentuak bi hiri europarri emandako titulua da eta haiei urtebetean euren bizitza eta garapen kulturala erakusteko aukera ematen die. Izendapen honek aukera paregabea eskaintzen die hautatutako hiriei, munduan zehar ezagutzera eman eta euren kultura politiken inguruan hausnarketa bultzatzea asmo duen proiektu kultural bat garatu dezaten, baita Europako kulturen aniztasuna eta ezaugarri komunak balioesteko ere. 2016an, Donostia Wroclawekin (Polonia) partekatuko du hiriburutza. Donostia 2016aren (DSS2016) kultura proiektuaren helburuak honakoak dira:

1. Kulturaren eta hezkuntzaren aldeko **apustua egitea**, hauek gizartearen aldaketarako eragiltzetzat harturik, berdinen eta desberdinen arteko elkarbizitza hobetzeko; hiritargoaren lidergo aktibotik baino gauzatu ezin daitekeen erronka.
2. Hiria eta lurraldea Europara gehiago zabaltzeko premiaz **kontzientzia sortzea**, erronkak eta arazoak elkarrekin bizi ditzagun, esperientziak partekatuz eta elkarlanaz baliatuz haiei elkarrekin aurre egin eta irtenbideak aurkitzeko.
3. Sektore kulturean sormena eta berrikuntza **sustatzea**, arlo desberdineko eragileen arteko lankidetzak bultzatuz, eta hiria formula berriak eta metodologia desberdinak probatzeko laborategi bihurtzea.

Helburu hauek lortzeko, DSS2016k gaikako hiru ardatzetan antolatzen diren ekintza sorta aurkezten du; ardatz horiek Itsasargien bitartez irudikatzen dira. Itsasargiak segurtasunaren, sendotasunaren eta iraunkortasunaren sinbolo dira, nabigatzaileak itsasertzarekin lotzeko ezinbesteko elementu. Itsasargiek hiriaren kanpoaldera igortzen dute argia, baina argi berbera igortzen dute barrualdera ere, itsasontzietan ez ezik, hiritarrei ere laguntzeko Donostia 2016k dakarren elkarbizitzako bidaia honetan.

Bizitzaren itsasargia

Itsasargi honek norbanakoaren askatasun arduratsua sustatu nahi du, egunerokoa osatzen duten eta pertsona bat hiritar bihurtzen duten gaietan harremanetan jarritz. Bertako ekintzek eta topaketek geure buruarekin, gizartearekin eta inguruarekin zer nolako harremana dugun pentsatzera gonbidatzen gaituzte, bizitza eder eta osasungarriago bat sustatzeko, bihozberagoa eta jasangarriagoa.

Ahotsen itsasargia

Itsasargi honentzat komunikazioa da gizabanakoaren eta gizartearen arteko oinarrizko zubia, norberarena eta kolektiboa dena lotzeko tresna. Itsasargi honetako ekintzek musika eta literatura bezalako arteek gizarte kohesionatuago bat lortzeko duten garrantzia ezagutzen laguntzen digute. Gizarte horretan ahotsak, bere adierazpide anitzetan, harrotasun positiboa, nor bere burua onartzea eta bakoitza kide den taldearen aldarrikapena irudikatzen du.

Bakearen itsasargia

Itsasargi honetatik duintasunaren eta Giza Eskubideen aldeko errespetua bultzatu nahi da, horiek baitira, gure ustez, gatazkak konpontzeko eta aginte modu berriak sortzeko gakoak. Antzerkia eta dantza bezalako arteen bitartez, bakearen eta elkarbizitzaren inguruan hausnartzeko erronka jartzen digute itsasargi honetako proiektuek, gizarte adeitsuago, justuago eta eskuzabalago bat lortzen lagunduko duen ondare erreferente bat bilatzeko.

Azken itsasargi honetan kokatzen da aurkeztu nahi dizuegun egitasmoa.

2. Arrazoiak eta testuingurua

Gure testuinguru politiko eta sozialean azpimarratu behar da, bost hamarkaden ostean eta ETAk bere ekintza armatuak behin betiko uzteko erabakiaren berri eman ondoren, garai berri bat zabaltzen ari dela. Honek goitik behera aldatzen ditu hainbat gauza, baina egia da ez dela arazo guztien konponbidea. Oinarrizko adostasunen faltan, bere horretan dirau suminak eta zatiketa politikoak. Hor diraute bidegabekeriak eta zauriek, hor sufrimenduek, injustiziek eta aitortu gabeko biktimek.

Ez da oraindik iraganaren memoria kritiko eta osatu bat egin... Hauei eta beste hainbat zeregin heldu behar diegu Euskal Herriko elkarbizitza oinarri etiko eta demokratiko sinergiarrietan kokatu ahal izateko.

Garaiotan bereziki beharrezkoa da hausnarketarako ahalegin irmo, zintzo eta zorrotz bat egitea adiskidetzeari eta elkarbizitzari leku egiteko. Iraganak eta esperientziak erakusten digu indarkeria amaitu ostean adiskidetzearen zeregina albo batera uzten dela sarri, egunerokoak dakartzan beste premia politiko, sozial edo mediatikoen ondorioz.

Hasiera batean, adiskidetzea garrantzizkotzat jotzen da, baina ez beti lehentasunezko kontutzat. Gero ordea, askotan gertatzen da bake prozesuetako protagonistak damu izaten direla zeregin horri nahikoa lehentasun eman ez izanaz; indarkeriak eta zatiketak gizar-tean sortu dituen arraildurak sendatu eta konpontzearen lanari, hain zuzen.

Gaur, adiskidetzea elkarbizitzaren ardatz hauskor eta ahula izanik ere, etorkizunerako elementu erabakigarria eta estrategikoa da. Izan ere, prozesu honek bere baitan hartzen du ezinbesteko ezaugarri bat: prozesu partekatua izatearen beharra. Bere bideragarritasunaren eta konplexutasunaren nahitaezko baldintza da: balio estrategikoa eta izaera ahula.

3. Programa honen helburuak

1. Gizartearen adiskidetzea landu asmoz balio etikoak sustatzea, antzerkiaren bitartez.
2. Antzerki-hizkuntza eskuragarri jartzea, hezkuntza metodo eta gizarte errealitatea eza-gutzeko eta eraldatzeko tresna bezala.
3. Elkarbizitza arazoentzako irtenbide errealak bilatzea, helduekin eta gazteekin eta horiek euren artean komunikatzeko sormenez beteriko hizkuntza entretenigarri, atsegin eta bateratzailea erabiliz.
4. Antzerkiaren bitartez ikuslea sortzaile bihurtzea, fikzio bat eraldatzeko lehenik eta ondoren, beharbada, bere errealitatea bera aldatzeko.
5. Elkarbizitzarako adiskidetzea izan behar denaren ideia bateratu bat lortzen laguntzea eta honako baldintzak betetzen dituen elkarbizitza eta adiskidetze kultura bultzatzea:

- Giza duintasunean eta elkarren arteko desberdintasunen onarpenean oinarrituko dena.
- Atzera bueltarik gabeko bakea lortzen lagunduko duena eta giza eskubideak bultzatuko dituena.
- Elkarbizitzan eragina duten hizkuntza, jarrera eta erabakiak leunduko dituena.
- Partekatutako oinarri etiko eta demokratikoen bitartez hezkuntza prebentibo bat ahalbidetuko duena.

4. Proposamenaren deskribapena eta parte hartzeko baldintza orokorrak

Adiskidetzearen bidea prozesu luzea izango da eta iraganeko, oraingo eta etorkizuneko oinarritzko hiru galderei erantzuna ematea izango du helburu:

Zer gertatu da eta zergatik?

Zer egin dezakegu orain?

Zer egin dezakegu etorkizunean errepikatu ez dadin?

Oinarri horren gainean garatu nahi du Baketik-ek Antzerki-foruma: Eta hik zer? Proiektua, Donostia/San Sebastian 2016 Europako Kultura Hiriburuaren eskutik elkarbizitza eta adiskidetzatza bultzatzeko.

Zehazki, 2015eko urtarrila eta 2017ko urtarrila bitartean 100 Antzerki-forum saio antolatuko nahi dira elkarbizitzan sakontzeko.

Saioek bi ordu eta erdi inguru iraungo dute eta horietan era guztietako elkarteetako kideek (kultur elkarteak, auzo elkarteak, gazte elkarteak...), unibertsitate arloko pertsonak, batxilergoko ikasleak eta nahi duen herritar orok parte hartzea nahi da. 8-10 eta 40 lagun inguruko taldeak osatuko dira.

Antzerki-forumeko saio bakoitzean, batez beste, 30 lagunek parte hartuko dutela aurreikusiz gero, esan dezakegu 3.000 pertsonak hartuko dutela parte programa honetan. Gainera, parte-hartze hori ez da saioak irauten duen denborara mugatzen, izan ere, parte-hartzaile bakoitzak idatziz utzi beharko du bere ekarpena: alde batetik, etorkizunerako desira bat, eta bestetik, desira hori lortzeko konpromiso bat.

Geografikoki, proiektu honek Donostiako hiriaren mugak gainditzen ditu eta 2016 lurraldea deiturikora zabaltzen da.

Hizkuntzari dagokionez, saioak euskaraz nahiz gaztelaniaz egiteko aukera eskainiko da (taldearen arabera) eta forumean parte-hartzaile bakoitzak erabaki ahal izango du zein hizkuntzatan aritu nahi duen. Horrez gain, hizkuntzak kuantitatiboki nahiz kualitatiboki kontuan hartuko du genero ikuspegia. Kuantitatiboki, generoen presentzia plural eta orekatua bilatuko da, eta kualitatiboki, elkarbizitza kultura berri baterako emakumeen ekarpen zehatzak jasotzen saiatuko gara (kontuan izanda beste prozesu batzuetan emakumeen bitartekaritza ekarpena oso garrantzitsua izan dela).

Saio bakoitzean gaur egun eta egunerokoan gerta dakizkigukeen 6 egoera aurkeztuko dira istorio labur moduan. Horien bitartez gure arteko elkarbizitza sustatzea bilatuko da datozen belaunaldiak etorkizunean gizarte hobea bat har dezaten oinordetzan. Egoera horiek antzeztu ostean, parte-hartzaileak istorio horren parte izatera eta beste modu batera berregitera gonbidatuko dira.

5. Behar teknikoak

Antzerki-forumaren formatuak eskatzen dituen behar teknikoak oso sinpleak direnez, modu askotako espazioetara moldatzen da: aretoak, ikastetxeetako gimnasioak, antzoki edo emanaldi aretoak, eta baldintzak betetzen dituzten erabilera anitzeko gelak.

Era berean, sesioa DSS2016ren egoitzan egiteko aukera ere badago (bereziki publiko orokorraren eta espazio propio egokia ez duten elkarte/entitateen partaidetzari begira), betiere obra hau burutzen duten aktoreen disponibilitatearen nahiz egoitzaren agenda soziokulturalaren arabera erraztu ahal izango da.

Antzerki-forum saio bat antolatu nahi dutenek, honako baldintza hauek betetzea bermatu beharko dute:

- 50 metro koadroko espazioa (oholtza eta gehienez ere 40 lagunentzako aulkiak edo kopuru horrentzako harmailak sartzen dira espazio horretan)
- Aulkiak, harmailak edo eserlekuak. Pertsonako bat (gutxienez 8, gehienez 40).
- Argindar hartunea (musika aparatua entxufatzeko).
- Aktoreen autoari (auto bakarra) materiala kargatu eta deskargatzeko sarbidea erraztea.
- Aparkatzeko baimena, antzoki edo erakustokien kasuan.

6. Antzerki-foruma. Zer da eta nondik dator?

Antzerki-forum metodoa Brasilen sortu zen 70eko hamarkadan nekazariak eta langileek euren eskubideak aldarrikatzeko erabili zutenean. Augusto Boal izan zen sortzailea eta Paulo Freireren pedagogiari jarraipena eman zion. Ondoren irakasleek eta ikasleek erabili zuten; eta gaur egun praktikan jartzen dute artistek, gizarte langileek, psikoterapeutek eta GKEek kale, eskola, eliza, sindikatu, antzerki, kartzela, eta abarretan (www.theatreoftheoppressed.org).

Augusto Boal (Rio de Janeiro, 1931-2009) antzerkigilea, idazlea eta Brasilgo Antzerkiaren zuzendaria, Antzerki-forumaren garapenagatik egin zen ezagun. Hainbat lan idatzi zituen; libururik ospetsuena *Teatro do Oprimido* da, 25 hizkuntza baino gehiagotara itzulia. Paris eta Rio de Janeiroko Antzerki-forum zentroen zuzendaria izan zen.

Augusto Boal-ek dioenez, ikusle-autorea «bere errealitatearen antzezpen autonomia asmatzeko eta errealitate irudikatuan bere askapena antzezteko gai bada, orduan fikzio horretan lortutako guztia bere bizitzara ekartzen saiatuko» dela, modu horretan, «eszena eta agertokia bizitzarako praktika leku» bihurtuz.

Antzerki-forumak bizitzak aurkezten dizkigun zapalketa modu desberdinekiko –barne eta kanpokoekiko– auto-liberazio prozesuak bultzatzen ditu: diskriminazioa, esplotazioa, indarkeria, botere gehiegikeria, manipulazioa, bazterketa, indarkeria psikologikoa, menpekotasuna, uniformazioa, isolamendua, pasibotasuna, inkomunikazioa, emozio falta, apatia... eta beste asko. Antzerki-forumak ikuslearen jarrera pasiboa gainditzea eta antzerki eta bizitzan autore-aktore bihurtzea ahalbidetzen du.

Formula parte-hartzaile hau zuzena eta eraginkorra da eta bi ezaugarri nagusi ditu:

- diskurtsoaren, teoriaren edo gomendioaren aurrean, egitasmo honek sormenezko hizkuntza entretenigarri eta bateratzailea erabiltzen du, hartzailearekin komunikatzeko modu didaktikoago eta pedagogikoago batean;
- entzumen pasiboa duen jarreraren aurrean, Antzerki-forumaren esperientziarekin parte-hartzaileak ikusle izatetik haratago, aktore eta zuzendari izatea ere ahalbidetuko du. Fikzioan errealtate bidegabe bat aldatzeko aukera izango dute. Antzerkian aldaketa horren eragile izateak gero, bizitza errealean, antzeko aldaketak eragiteko baliabideak ematen dizkie.

7. Baketik

Pertsona, hezkuntza, elkarbizitza, erakunde eta gizarte mailako eraldatze-prozesuak bultzatzen dituen fundazioa da Baketik, beti ere etika dela abiapuntu. Sei arlotan egiten du lan: pertsona, hezkuntza, bizikidetzatza, enpresa, bitartekaritza eta elkartasuna.

Antzerkiaren bidez, indarkeria eta jarrera arrazistak prebenitzeko Irlandan arrakasta izaten ari zen esperientzia bat –Antzerki-forum metodoan oinarritutakoa– ezagutzeko aukera izan zuen Baketik-ek 2006. urtean. Ekimenak berak duen interesaren eta gizartean edo euskal eskola komunitatean dagoen kezkaaren aurrean, esku-hartze prebentibo honetako bultzatzaileekin harremanetan, euskal ikastetxeei zuzendutako esperientzia pilotu bat antolatzea erabaki zuen Baketik-ek Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

Modu horretan, 2007ko urtarrila eta otsaila bitartean, eskolan indarkeria eta jarrera arrazistak prebenitzeko antzerki sozial bidezko esperientzia pilotu bat jarri zuen martxan; 30 ikastetxek eta 1.300 ikaslek hartu zuten parte ekimen horretan. Esperientzia pilotuak oso balorazio positiboa jaso zuen parte hartu zuten kide guztien aldetik. Orduetik hona, Baketik-ek Antzerki-forumaren inguruko programa desberdinak martxan jarri edo haietan parte hartu du; honakoetan, zehazki.

- Eskolan balio etikoak bultzatzeko proiektua. Hiru arlo lantzen dira: (1) arrazismoa eta eskola jazarpenaren prebentzioa 8-12 urte bitarteko haurrekin; (2) eskolako harreman afektiboetan errespetua, askatasuna eta parekidetasuna bultzatzeko programa 13-14 urteko gaztetxoekin; eta (3) aniztasunaren eta inmigrazioaren aurrean, errespetua eta parekidetasuna bultzatzeko programa 15-16 urteko gazteekin. 2007tik 2014ko abendura bitartean 610 saio inguru egin dira eta 25.000 ikaslek baino gehiagok hartu dute parte egitasmo honetan, Eusko Jaurlaritzako sail desberdinen laguntzarekin.
- Eskolan biktimekiko elkartasuna lantzeko proiektua. Momentuz, hogeitasei saio inguru egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako DBH 4ko eta Batxilergoko ikasleekin.
- Bide-segurtasuna bultzatzeko proiektua. Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak sustatutako programa da, eta DBH 3 eta 4ko ikasleei zuzendua dago. 2012tik hona 130 saio inguru egin dira eta 5.000 ikaslek baino gehiagok hartu dute parte ekimenean.

Ikastetxeek, hezitzaileek, ikasleek eta erakundeek proposamen honen eta bere emaitzen balorazio oso positiboa egiten dute eta asebetetze maila oso altua erakutsi dute.